

AITA IMANOL BERRIATUA, 25 URTEGARRENEAN

1.- Gazteak eta Imanol Berriatua

Norbera 18 urteko gazteekin irakasle ibilirik, erraz entzuten da urlia zaharra dela edo sandia atsotuta dagoela. Nik, orduan, eurak hamazortziko neska-mutilak ere ez direla betiko lore gazteak konturarazteko, adibide erraza jartzen diet: Zuek eta zuen adinekoek dirua kontatukeran, euroaz baliatzen zarete, baina milioiak aipatzen direnean, euroetan kontaturikoa ondo ulertzeko pezetetan ere zenbatu beharra duzue. Hots, euroak eta pezetak erabiltzen dituzue. Aldiz, zuek baino sei urte beheragokoek euroetan baino ez dute kontatzen; eurentzako pezetetan zenbatzea arkaismoa da. Hau da, sei urte beheragokoen-tzat zuek hamazortzikook zaharrak zarete.

Hala eta guzti, adin honetakoentzat Imanol Berriatua hizkuntzalaria eurak jaio aurretiko norbait da, urrunekoa. Ostera, guretzat, irakasle eta lagun ezagutu genuenontzat bada lehen-txoagoko adiskidea da.

Imanol Berriatua Ibieta 1981.eko irailaren 15ean hil zen Jerusalem eta guk handik 25 urtera dakargu gogora. Elantxoben jaioa 1914an. Umezaroan herritik Gernikara aldatu zen.

Ikasketak Foruko komentuan hasirik, Arantzazun-eta jarraitu zituen. Gerra dela-eta Kubara joanik, bertan egin zen fraide. Hamahiru urte igarota, Ameriketatik itzulirik, Foruan jardun zuen erretoretzan eta irakasle lanetan, euskara, greziera eta frantsesa ematen. 1953an ANAITASUNA aldizkaria sortzen du. Forutik Bermeora aldatzean, arrantzaleen kapeilau dela zortzi urtez joan zen Afrikara. Azken urteak Bilbon Iralabarriko Frantziskanoen komentuan bizi izan zituen. Urte hauetan lan asko egin zuen ANAITASUNANn, Euskaltzaindiko aditz batzordean, eta Oinarrizko Euskararen Batzordean; era batera, Bilbo Handiko euskarako irakasleen irakasle nahiz artikulugileen zuzentzaile zorrotz izanik. Euskaltzain urgazlea izendatu zuten 1961ean. Israelen hebraiera bezala, Euskal Herrian euskara berpizteko bide eta metodo bila Israelera joanik, bertan zendu zen.

2.- Gauza bik alienatu zuten Imanol.

Euskaldunaren berba eman du Imanolek. Eman ere ondorio guztiekin: "Gauza bik alienatu naute beti: kristau fedeak eta euskarak. Alienaturik ez daudenentzat, bi gauza horiek gutxi balio dute. Niretzat, berriz, asko. Horregatik, beraiei eman diet neure gogoia eta bihotza. Uste baitut, kristau federik gabe ez naizela egiaz libre, eta euskara barik ez naizela euskaldun".

Erljioak bizi du Imanol: "Goizetan, meza ostean, eguzkia zeru ertzean bere aurpegi gorriaz agertzen deneko, orduen liturgia errezatzen hasten naiz, tosta gainean jesarrita. Momentu atsegingarria benetan! Badauzka hemengo bizitza honek bere pozaldiak. Niretzat, goizeko hauxe izaten da haundienetarikoa. Gero, egun bitartean, tarteka-marteka egoten naiz nahiz irakurtzen nahiz idazten nahiz igandeko hitzaldia prestatzen". Atondu ere ezin hobeto atontzen zuen berbaldia Imanolek-eta: "Horrexegatik, ahalegin handia egiten dut, sermoitxo hori ondo prestatzeko, arrantzaleen arimako problemak azaltzeko eta beraien berbeta moduan hitz egiteko".

Honelakoak ziren Berriatuaren berbaldiak: “Meza bitartean semoitxo bat egiten nien barrukoei. Nire inguruan zeuden denak. Eskuaz ukitu ahal nituen. Meza zergatik eta zertarako entzuten zuten erakutsi nien. Jainkoari kultu ematea ez zela luxozko gauza. Behar beharrezkoa zela. Gizonaren izaerak berak eskatzen duela. Meza entzuteaz, gizonago egiten zirela, beren biziera soziala hobetu egiten zela, eta beren aberastasun izpirituala gehitu. Santa Mariakoek ezin zuten entzun nire boza. Ikusi bai, baina, nire eskuen eta gorputzaren mugimendua. Eta meza amaitzerakoan, denak, ontzi bietakoak, belaunikatu egin ziren, bedeinkazioa hartzeko”.

Aita Imanolek diharduela diharduen elkarrizketan, amaierarantz erlijioa ekartzen du solasera: “-Eta, orain, Irlandako kristau bizitzari buruz galdexka batzuk egin nahi dizkizut. Nola betetzen dute Irlandako katolikoek pazkoko eta igandeetako obligazioa?”.

Berriatuaren eta frai Albertoren apostoladutza bideak, edozein kasutan ere, ireki gabeak ziren: “Orain sei urte, lehen aldiz Oestafrikara enbarkatu nintzenean, nire beldur ziren barruko arrantzaleak. Suberte (zorte) txarra emango niela uste zuten denek. Barruko balbea (gafe, erdaraz), barkuko patua (hado siniestro) izango nintzela pentsatzen zuten. Gero, arrantzan hasi ginenean, aldatu egin zuten beren uste txarra. Gure barkua, Aita Imanol barruan egon arren, lehengo besteko subertosoa zen”.

Emaitzak ere ez ziren beti on-onak: “Iaz, hemengo egoeraz hitz egiten hasi nintzen Bermeoko pulpitan. Ez zidaten bigarren berbaldia egiten utzi. Egia, askotan, garratza izaten da. Hori gorabehera, Aita Sainduek beti esan digute kazetarioi, beti eta gauza guztien gaineratik egia esateko”. Imanolen egia gertatu bazen mingarri, erlijioagatik baino beharginen alde agertzen zelako, seguru asko: “Baina arrantzale guztiak ez daude gertu, horrenbeste ezbehar eta nahigabe pasatzeko. Tostarteko askok gurago dute gutxiago irabazi eta etxean geratu. Dakarreko puntan sekulako penak igaro baino. Esperientziaz dakite,

ontzi jabeek gero eta aberatsago egiten diren bitartean, berak –tostartekoak- beti pobre lotuko direla”.

3.- Zelakoa zen Imanol Berriatua?

Imanol Berriatuak adorea neurtzen zuen adina, ez urteka. 1981eko ekainean idazten du: “Urteek ez dute gizona zahar edo gazte egiten. Batzuk urte asko daukate, eta gazteak dira. Beste batzuk, berriz, ez daukate urte askorik, eta zaharrak dira. Izpirituak, izpirituak! Horrexek ematen digu gaztetasuna!”.

1958an, ordea, ez zen modu berean mintzatu: “Bertan enbarkatu ziren fraide dominikano bi, soineko zuriz jantziak. Bata zaharra, hirurogei eta bi urtekoa. Bestea gaztea, hogeiei eta hamar hor hor zeuzkana. Biak ziren irlandarrak, eta bisitaldi-txo bat egitera zihoazen beren aberrira”.

Imanol erretzailea zen: “Erretzea –denok dakigu- ez da gauza ona. Baina bere alde ona ere badauka. Adibidez, Urliarekin hitz egin nahi duzu, eta zigarreta bat eskaintzen diozu. Bion artean konfiantza sortzen da, eta hizketan hasten zarete lasai lasai. Horixe egiten dut nik ere ulpaneko pausaldietan. Hala ere, utzi egin nahi diot erretzeari. Noiz gertatuko da mirari hori? Beharbada Israelgo ikastaro honetan”.

Erretzailea urduria, oso urduria: “Urduri noa. Erlojuari begiratzen diot. Une honetan goizeko ordu batak markatzen ditu. Bero egiten du. Bero larregi. Goiko hoditik haize apurtxo bat dator. Baina ez da niretzat nahikoa. Zigarreta baten atzetik beste bat eta beste bat erretzen dut. Erre eta erre! Alboko andrea espainola da. Bidaia guztian alamen itzala eman dit. Beti berba eta berba. Eskuindarra da, eta ez ditu maite euskaldunak. Nire nerbioak eten egingo dira”.

Imanol albako oilarra zen: “Gero eta gero ere, goizeko bostak entzun ditut, eta berehalaxe jaiki naiz ohetik. Egin ditut neure garbiketak, egin dut gimnasia apur bat, eman dut meza, egin dut otoitz, jan dut gosaria, eta banago prest”.

Berriatua umoredun fraidea da eta gizonezkoa: “Honezkerro denek dakite nire bizibidea: apez katolikoa, gizon arteza, ezkongabea, ez neskazalea. Hala ere, ia beti biltzen naiz ikasgelako neskatilekin. Batzuk polit-politak dira. Batez ere Alemaniako hirurak: Ulrike, Betina eta Gabriela. Ikasgelan ere neskatilen artean jesartzen naiz. Zergatik? Haiekin errazago egiten zait hitz egitea. Niretzat, hebraiera berba egitea da inportanteena”.

Irakurleak zuhur jardun behar du Imanolen umore zorrotza atrapatzeko: “Arratsaldeko seietan heldu dira jokalaria Sion mendi inguruko zelaira. Hantxe egon naiz ni ere. Zelai osoa jendez beterik. Bi edo hiru hizlarik berba egin dute. Haien artean, Gobernuako lehen ministroak, Menahem Beginek. Nik ez diot ezer ulertu. Baina, seguru asko, kirolarien garrantziaz eta mundu guztiko juduen batasunaz hitz egingo du”.

4.- Euskal Herrian irakasle, Israelen ikasle.

Askok gara euskal munduan dihardugunon artean Aita Imanolen ikasle izanak. Berak dio: “Haundia da benetan maisu-maistren garrantzia. Nolako irakaslea, halako ikaslea”!

Israelen ulpanetakoak miresten ditu: Shulamit andrea irakaslea da. Shulamit andrea Akiva ulpaneko zuzendaria da. Ulpan guztiz ona, fama haundikoa. Hantxe egin dut, orain bost urte, neure lehen esperientzia. Hantxe ezagutu dut emakume miragarri hau. Beronen ikasgelan egon naiz, eta harrituta utzi nau. Beronen pazientziak, beronen mimikak, beronen adoreak zurturik utzi nau. Lehen nik ere hizkuntzak irakatsi ditut. Baina irakasle honen aurrean lotsatuta geratu naiz. Halako irakasleak behar ditugu Euskal Herrian”.

Imanol ikasle dabil, ostean irakasle izateko: “Maistrak hebraieraz hitz egiten du. Ez du beste hizkuntzarik erabiltzen. Ez diot erbesteko berbarik entzun ikasgelan. Guk ere dena egiten dugu hebraieraz. Lehen momentu momentutik. Entzun, uler,

errepika, idatz, irakur. Dena hebraieraz. Hitz egin eta hitz egin. Denok hitz egin. Ezin da inor isilik geratu. Esaldi laburrak eta errazak irakasten dizkigu maistrak, eta guk mila bider errepi-
katzen ditugu. Errepika eta errepika. Azkenean barruraino sar-
tzen zaizkigu”.

Berriatua Israelen dabilenean Euskal Herrira so ari da: “Eta ni neure herriaz oroitu naiz, eta garrasi bera entzun dut neure barruan: “Euskaldunok, ez gal, ez gal denbora!”.

Ikasiko hizkuntza gero etxeko bilakatzea gura du, ikaslea irakasle izatea: “Arie Shoval Tel Aviven jaio da, orain 55 urte gutxi gora behera. Beraren gurasoak Ukrainatik etorri dira. Shovalek, bere ume denboran, eskolan ikasi du hebraiera. Eta gero bere gurasoci irakatsi die etxean. Etsenplu ona euskaldu-
nentzat!”.

Imanol Berriatuak euskararako gura duen eredia Israelen erabiltzen da eta Euskal Herrira ekarri gura du euskaldun be-
rrientzat: “Eliezer Ben Yehuda! Bera da gaurko hebraiera bizia-
ren aita. Berak hirpiztu du hebraiera. Berak eman dio berriro
bizia.

Bere etxean hebraieraz hitz egiten du, hebraieraz pentsa-
tzen du, hebraieraz barre egiten du, hebraieraz lan egiten du,
hebraieraz idazten du. Ez du beste hizkuntzarik erabiltzen.
Orain arte Israelen ez da inoiz holako etxerik egon. Beraren
etxea da lehenengoa”.

Imanol ikasleak gero irakasle izango denean –eta artean gu-
tariko askok *Euskara Hire Laguna* erabiliak- metodo berbera
erabiliko du: “Ni neu guztiz nekaturik joaten naiz ohera, eta
txarto lo egiten dut gau askotan. Ikasgelako esaldiak eta arike-
tak eta irakurgaiak eta elkar hizketak eta idazkiak eta kantuek
eta galderak eta erantzunak etortzen zaizkit burura, eta ez nau-
te baketan uzten. Ezin lorik egin! Ez zait holakorik gertatu
neure bizitza guztian. Behar bada, ez didazue sinestuko, baina
egia hutsa da”.

Sara Harowitz-i egiten dion gutunean azaltzen du ikasle den artean ere zer xede duen: “ Han su eta ke jardun dut hebraiera ikasten, zortzietatik ordu batak arte. Arratsaldean, lan berezi bat egin dut etxean. Euskarazko artikuluxkak idazten ditut Euskal Herriko euskaltegietako ikasleentzat. Israelgo gauzak kontatzen dizkiet lehen mailako euskaraz. Lan hau asko kostatzen zait, baina pozarren egiten dut. Euskarazko irakaslea naiz –badakizu- eta zeregin hau nahitaez egin behar dut. Agur, Sara! Berriro elkar ikusi arte!”.

5.- Euskaltzale sutsua zen.

Berriatua bakerakoa da, baina sutsua ere bai euskararen arloan: “Ni neu guztiz komentzituta nago, euskara ikasteko, borondatea bakarrik behar dela, beste hizkuntza guztietan gertatzen den antzera”. Borondatea eta euskaltzaletasuna: “Kixioetik Muselarako autobusean, euskaraz hitz egiten zetozen arrantzale batzuk. Portutik hur zeudela, erdaraz egiteko esan zien guztiz haserre asturiar batek. Hura izan zen iskanbila! Bermeotar guztiak hasi ziren aldarrika, euskaraz egiteko eskubide osoa zeukatela-eta. Halaxe iraun zuten azken geltokira arte. Jaitsi ziren denak. Bermeotar bat borrokan hasi zen asturiar harekin, eta ukabilkada batez behearen gainera bota zuen. Nik ez diot, hori ondo dagoenik. Baina euskaldun guztiak bermeotarrak bezain euskaltzaleak balira, euskarak ez luke inon arra bat ere galduko”.

6.- Idazle handia da Aita Imanol.

Imanol Berriatua sutondoko katua da, batu-baturik da eze-rezeko lekutxoan, bero handiko testuak idazten: “Atzo irten ginen Dakarretik, arratsaldeko lauretan. Etxerantz goaz. Bermeorantz. Jainkoa lagun, martxoaren 4an-edo helduko gara. Kanarietako Las Palmasera. Bost egunetako bidea. Bitartean, kronikatxo bat idatziko dizuet. Dakarreko azkeneko berriak jakin ditzazuen. Eguraldi ona daukagu: itsasoan kalma zuria, ze-

ruan eguzki epela. Popa gaineko batelean jesarrita nago. Erdi ostenduta. Hemen ez nau inork molestutzen”.

Idazle handia da, giharduna, hiztegiko berbak dantzan jartzten dakiena: “Agur bero bat Dakarretik. Atzo arratsaldean, bost eta erdiak inguruan, heldu gara bertora. Hamalau egun justu, Bermeoko portua utzi genuenetik.

Hemen ez zaigu inor irten, ongi-etorria ematera. Bermeoko portuan, herriz, hura izan zen bai agurraldi ederra, inoizkorik ederrena.

Arratsaldeko 5etan atera ginen Bermeotik. Hazilaren 16an. Ondo gogoratzen naiz. Arrain-ontziak txistuka. Kaiak jendez beterik. Eskuak eta musuzapi zuriak airean. Batzuk –andreek, emaztegaiek, umee- negarra aurpegian. Beste batzuk –untzi- ratze gabeko tostartekoek- pena handia bihotzean.

Hamasei ontzi ginen guztitara. Hamalau Bermeokoak eta bi Hondarribikoak. Aurten, Ertzigoiti ontzian goaz fraideak. Ontzi ederra berau, 250 zalditako motorduna.

Matxitxakoren aurretik pasatzean, talaiako irratitik agur egin ziguten alkate jaunak eta kofradiako presidentek. Azken agurra. Agur, Bermeoko herria! Agur, datorren urtera arte”!

7.- Herri bat, hizkuntza bat.

Berriatua idazle eta idazleen gidari da, leaderra: “Integrazioa hizkuntzatik hasten da. Hizkuntza da kulturarako bidea. Hizkuntza bera ere kultura da. “Euskara barik, ez dago Euskal Herririk”, esan dugu sarritan euskaldunok. Juduek ere mila bider errepikatzen dituzte Eliczer Ben Yehuda ospetsuaren berba famatu hauek: “Herri bat, hizkuntza bat, juduok hitz egin hebraieraz!”

Imanolek kultura bidea hartzen du askatasunerako: “Arra- zoia dauka Federiko Krutwig euskal akademikoak: “Euskal Herriak kultura behar du. Baliozko kultura hartu behar du. Kultu-

razko mezua bidali behar dio munduari. Bestela, ez da inoiz benetan libre izango. Beti izango da inoren menpeko”.

Berriatua irakaslea herri bat, hizkuntza bat eskatzen ari da, nahiz eta euskara batua sortu artean ere -1961ean- berak ideia guztiz aurrerakoiak eduki: “Hor, Euskal Herrian, aspalditik dabilta jakintsuak euskararen batasuna bilatzen. Datozela Dakarrera, eta ikus dezatela nola egin duten zorioneko batasun hori bertoko euskaldun arrantzaleek, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Lapurdikoek. Nik neuk zirkunferentzia txikitxo bat egingo nuke Euskal Herriko mapan. Barruan sartuko nituzke Donibane Lohitzune, Sara, Elizondo, Bera, Oiartzun, Errenteria eta Pasaia; eta bertan bilatuko nuke, beste inora joan gabe, euskararen batasuna”.

Euskararen garbizaletasuna dela-eta eztabaida biziak ezagutu ziteun Imanol Berriatuak. Beraren iritzia honelakoa zen: “Anaitasuna denona da. Zuen eta gurea. Poz gaitezen, ba, denok, Euskal Akademiak erakutsi digun estimazioagatik. Eta orain uztazue, mesedez, euskaraz idazten lagundu nauten guztiei eskerrak ematen.

Eskerrak euskaltzale jakintsuei, batez ere Federiko Krutwig jaunari. Orain hamar urte direla, euskara-garbizale itzela nintzen ni. Sasoi hartan, Krutwig akademikoa ezagutu nuen Bilbon, eta jaun honek egiazko bidera ekarri ninduen.”

Krutwigen irakatsiei jaramon eginik Aita Imanolek teoriaz ez eze praktikan ere halako prosa darabil: “Nire ustez, bermeotarren hiztegia aberatsa da, interesantea da. Duda barik, bizia da. Nire iritziz, gaur egunean herriaren euskara Bermeokoaren antzekoa da edonon. Bermeoko fenomeno ez da bakarrik bertokoa. Euskal Herri osokoa baizik, batez ere hiri handietakoa. Nahitaez, hauxe da gure euskara. Batzuk beste euskara bat gura lukete, garbiagoa, bitxiagoa. Baina orain bizi den euskara, ez da horrelakoa. Ez, ez da horrelakoa. Komentzi gaitezen. Hizkuntza baten giharra mintzabide izatean edo ez izatean datza. Nire ustez, euskara biziaren gainean egin behar dugu

lan. Euskaltzaleen problema nagusia ez da hizkuntzaren bitxitasuna, garbitasuna, haren bizitasuna baizik. Auzi honetan herria da maisua. Berak esango digu zer euskara klase den onena, elkar ulertzeko eta elkarrekin berba egiteko. Esan digu Bermeoko herriak”.

8.- Euskalduna, euskaltzalea, abertzalea.

Aita Imanol Berriatua euskalduna da, euskaltzalea ere bai, baita abertzalea ere: “Astekariak ez dakar iragarkirik. Ez dauka alderdikeriarik. Abertzale hutsa da. Haren helburu soila hauxe da: hebraiera irakastea, hebraieraz irakurtzen irakastea”.

Israeleko estatua ikur dela begiratzen dio Euskal Herriari: “Hogei eta hamahiru urte hauetan, juduek izugarrizko lana egin dute. Gero eta ederragoa, zoriontsuagoa, miragarriagoa, jakintsuagoa egin dute beren aberria. Horretarako denok batera lan egin dute. Beren arteko diferentziaz ahaztu dira, eta antzinako etxe zaharra berriro eraikitzen saiatu dira. Indar guztiez saiatu dira. Arlo guztietan saiatu dira: industrian, nekazaritzan, ekologian, hezkuntzan, kulturen eta abarretan”.

Azken baten Imanol Berriatua –kristau fedea eta euskarak alienatuak- Israelera jo zuen Euskal Herri euskalduna eraikitzeke eredu bila, erdalduak euskalduntzeko metodo bila, beti ere, euskaldunen eredu Bermeoko arrantzaleak dituela –edonongo arrantzaleak, baina, batez ere, bermeotarrak-. Imanol arrantzaleak kristautasunera ekartzera joan arren, irabazi arrantzaleek euren egiten dute Imanolen bihotza: “Jendeak gutxi daki nor eta nolakoa den arrantzalea. Ez daki, beste gauza askoren artean, arrantzalea, behar bada, Euskal Herriko euskaldunena denik. Barkatuko didate baseritarrek. Nire ustez, arrantzaleen euskalduntasuna haiena baino dinamikoagoa da. Baseritarrena, berriz, arrantzaleena baino estatikoagoa. Eta momentu honetan, arrisku handiko sasoi honetan, dinamismoa behar dugu gehienbat”.

9.- Aurten, Aita Imanol Berriatua omentzen dugu.

Imanol Berriatua frantziskotarra, euskara batuaren gurasoetarikoa, ANAITASUNA aldizkariaren sortzailea, HITZ EGIN metodo handiaren egilea, Israelek hebraiera bezala euskara berpizten ziharduena, arrantzaleekin arrantzalea, gutariko irakasle askoren irakaslea, idazleen zuzentzailea, adiskide beroa omentzeko urtea dugu 2006. hau. Helburu hori lortzeko bidean, gaurko artikulua lehen urratsa besterik ez da.

10.- Bibliografia:

- 1.- BERRIATUA, I. (1982): *Ikasle Israelen*. Oinarrizko Euskara. Euskaltzaindia.
- 2.- BERRIATUA, I. (1981): *Itsasoa eta ni*. Oinarrizko Euskara. Euskaltzaindia.

Juan Luis Goikoetxea Arrieta.